



LASARTE-ORIAKO APARKALEKUEI BURUZKO MOZIOA

2016ko maiatzaren 10eko Ohiko Udal Batzarrak aho batez adostu zuen EH Bildu eta PSOE Udal Taldeek Lasarte-Oriako aparkalekuei buruz transakzionatutako mozioa. Bertan, besteak beste, Udal Gobernuak herriko aparkalekuei buruzko prozesu parte-hartzeazaille bat egitea erabaki zen, eta, horren ondoren, Gobernuak ekintza-plan bat aurkeztea Zerbitzuetako Batzordean.

Bi urte pasa eta gero, Udal Gobernuak “orri txuria”-ren eredian oinarritutako prozesu parte-hartzailea martxan jartzen zuela prentsan ikusita, 2018ko maiatzaren 8ko Udal Batzarrak EH Bilduk aurkeztutako “Aparkamenduei buruzko prozesu parte-hartzaile serio eta osoa egitearen alde”-ko mozioa onartu zen EH Bildu, ADLOP eta EAJren bozkekin. Akordio honetan, herritar, eragile eta auzo elkarteekin landu ahal izateko, aholkularitza teknikoaren kontratazioa adosten zen prozesua gidatzeko.

2019ko apirilean gaude, urtebete pasa da azken akordio honetatik, eta orduan planteatzen genuen eskakizun berbera mahai gainean jartzeko beharrean gaude berriro, eta 2018ko mozioaren zioetan esaten genuena errepikatu behar dugu berriz: parte-hartze prozesu bat modu serioan aurrera eramatea eskatzen dugu. Prozesu partehartzaileak martxan jartzerakoan fundamentu handiagoaren jokatzeko eskatzen dugu. Nola da posible, parte-hartze prozesu bat aurrera eramateko, diseinua inolako aholkularitza teknikorik gabe egitea? Nola da posible parte-hartze prozesu bat, herritar, eragile eta elkarteekin bildu eta Udalak dituen azterketak eta txostenak konpartitu gabe? Egon daitezkeen mota aukerak eta oztopoak herritarrekin landu gabe? Aukeraketa egiterakoan, herritarren

balorazioa kontrastatu gabe? Horregatik guztiarengatik, benetako prozesua eskatzen dugu, serio eta osoa, aholkularitza teknikoaren gidapean, herritar, eragile, auzo elkarteekin eta abarrekin landuko dena.

Hau guztia kontutan hartuz, Lasarte-Oriako Udal Batzarrak honako akordioa onartzen du:

1.- 2018ko maiatzaren 8ko Udal Batzarrean onartu zen moduan, aparkalekuei buruzko parte-hartze prozesua aurrera eramateko aholkularitza teknikoa kontratatzea.

2.- Aholkularitza tekniko horrek parte-hartze prozesuaren diseinuaren berri ematea udaleko zinegotzi guztiei Barne Erregimeneko Batzordean.

3.- Parte-hartze prozesua martxan jarriko da aholkularitza teknikoak behin Barne Erregimeneko batzordean prozesuaren diseinuaren berri eman ondoren.

Lasarte-Orian, 2019ko apirilaren 3an